

Hezkuntza Sailak, ohi bezala, negoziazioari muzin

Martxoaren 4ko bileran ez die fundamentuzko erantzunik eman Irakaskuntza Publikoko irakasleen ordezkariaren gehiengoaren eskaerei

Hezkuntza Sailak joan den ekainean CCOOekin gutxiengoan izenpetutako akordioarekin lortu zuen inposatzea aurreko negoziazio prozesu osoan erakutsitako jarrera: langileen ordezkariaren gehiengoaren eskaerei muzin egin eta, bide batez, batasun sindikala hautsita, erabakiak nahi duen modura gauzatzeko joera indartzea.

Gauden unean, lan baldintzen dekretua indarrean jarri zenetik hainbat hilabete pasa direnean, jadanik oso nabarmena da dekretu horrek ez duela balio izango sektoreak dituen, eta joan den ikasturtean mobilizazioen ardatz izan ziren arazoei aurre egiteko.

EAEko hezkuntza publikoak dituen errokei aurre egitea –figura berriak, belaunaldien arteko ordezkatzeko prozesua, haur hezkuntzako ratioak ikastetxe guztietan hobetzea, irakasleen zama arintzea etab.– erabat ezinezkoa izango da dekretu honen bitartez.

Gainera, hilabete hauetan arazo berriak sortuak dira: ordezkapenen zerrenden kudeaketa negargarria, matrikulazio prozesuen inguruko jokaera lotsagarria eta erasoen inguruko hanka-sartze larriak. Horiek guztiak Hezkuntza Sailaren fundamentu eskasaren adierazle nabarmenak diren bezala, sindikatuekiko harremanekin gertatzen ari dena administrazioak negoziatzeko daukan ezintasunaren adibide garbiak dira.

Bestalde, dekretu horren kudeaketaren arduradunek, iristen ari zaizkigunak egia badira, dekretu horretan bertan ezarritakoa aldatzen eta oraindik era murriztaileagoan jokatzeko ari dira. Zentzu honetan, ordezkarien tutoretza-osagarriaren inguruan erabakitzen ari direna oso adierazgarria da, besteak beste, dekretuaren iraunaldia aldatu dutelako. Badirudi sekretupean daramatela dekretua kudeatzen duen batzorde parekidearen dinamika, legez igorri behar dizkiguten bilera-aktak ere ez baititugu ezagutzen. Dakiguna zera da: **ikasturte hasieratik izandako mobilizazioen ondorioz ari direla hitzarmen atzerakoiaren atal negargarrienak txukundu nahian.**

Orain dela hiru hilabete bildu zen azken aldiz mahai sektoriala STEE-EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuak exijituta. Orduan, planto bat burutu behar izan genuen bilera hura gauza zedin. Antza, batzuk ez dute interes handiegirik gauzak beste era batera egiteko eta, hiru hilabete hauetan bilerarik ez deitzeaz gain, gai garrantzitsuen aurrean tramite batzuk besterik ez dituzte bete.

Hezkuntza Sailak sindikatuekiko dinamika baztertzaila burutu du. Hortaz, ondorioztatu beharko da administrazioak hainbestetan aipatzen duen hezkuntzako eragileen zerrendan ez gaudela, nonbait, sindikatuak. Bestela, zaila da ulertzea gauzatzen ari den jokabidea. Zoritxarrez, jarrera inposatzaile hauek ez dira irakaskuntzan soilik ematen. Osakidetzan izandako prozesuari begiratzea besterik ez dago.

STEE-EILAS, LAB, ELA eta UGT sindikatuok beste behin berretsi nahi dugu geure konpromiso sendoa hezkuntzaren alde eta bertan lanean diharduten guztien aldarrikapenen alde eta hemendik aurrera ere bidea jorratuko dugularik beharrezko neurriak ahalik eta lasterren ezarriak izan daitezen.

Gasteiz, 2008ko martxoak 4

STEE-EILAS 


Irakaskuntza **LAB**


Irakaskuntza **ELA**
gizalan

